



**KIMETZ ARANA
BUTROE**
BARATZEZAINA

Bizitza

Beste hainbat bezala COVID pasearen aurka Bilbon deituta zegoen manifestaziora joan ginen aurrekoan. Bertan adin, kolore, janzkera eta hizkera askotariko zenbat jende zegoen ikusteak asko poztu ninduen, eta tartean topatu nituen unibertsitate garaiko batailetako lagunak edo nekazari ezagunak.

Nekazal munduan txikiagoa da administrazioek jendearen eta lurraldearen gainean duten kontrola, ohituak gaude eskatzen egon beharrean sortzen zaizkigun arazoak gure kabuz konpontzera. Agian horregatik askoz malgutasun eta distantzia gehiagorekin bizi ditugu pandemiaren ondoriozko neurriak.

Nekazaritza ekologikoan, gure landare eta animalientzat nahi ez duguna ez dugu nahi guretzat ere. Beraz normala da genetikoki moldatutako txertoen errezelo izan eta hainbeste nekazari manifa topatzea.

Haurrak ere izan dira deialdiko protagonista. Umeen txertaketak sortzen dituen dudak, eskoletako protokoloen gogortasunaren eta familiak jasaten ari diren presio eta egoera bortitzen ondorioz.

Gure kasuan etxean ez dugu telebistarik, baina pandemia hasi zenean komunikabideek gaiarekiko hartu zuten tonua ikusita, musikarako ez ezik beste gainontzekorako irratia itzaltzea erabaki genuen.

Gure osasunerako harturiko neurririk onenetako bat izan zela uste dut.

Kritiko izan gara beti boteretsuekin eta kritiko jarraitu dugu bi urte hauetan ere. Pandemiaren hasieratik sentitzen genuen agintarien neurri, debeku eta aholkuak haientzat onak zirela, baina ez genuen hain garbi guretzat onenak ote ziren. Horregatik gure senez jokatu dugu beti. Baratzean ibili ginen galarazita zegoenean, aire garbia arnastu dugu ahal izan dugun guztietan eta gure herria delako Iparraldera eta Nafarroara joan gara behar izan dugunean, mugak itxita izan direnean ere.

Eztabaida debekatu eta ez da gaiaz eroso hitz egiteko aukerarik eman, norabide bakarrean ibiltzera bortxatu nahi izan gaituzte denok. Egoera horretan, nire bidea egiten eta logikatik kanpoko neurriei ahal bezala isilean iskin egiten saiatu naiz, harik eta COVID pasearen eskubide murrizketek protestara eraman nauten arte.

Sekulan ez genuen halakorik ezagutu eta ulertzen zaila da gertatzen ari dena. Ez dakigu interesak non dauden eta ez da erraza etorkizuneko bizimodu aldaketak aurreikustea. Baina alderdi, sindikatu eta eragile gehienek isiltasunaren aurrean ahots kritikoak zabaltzeko aukera eman du Bizitzak, eta bakarrik ez gaudela sentituzkoa. Ez da gutxi eta ez gara hain gutxi, ikusiko dugu zer emango duen. ●



**CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA**

Lehenbiziko aldiez

Mendiko bota batzuk jantzi nituen lehenbiziko aldia lagun bati egingadako omenaldi batera joateko izan zen. Herriko irrati librean irrati programa bat egiten genuen, eta ni literaturaz aritzen nintzen. Edo tokatzen zenaz. Hegazkin bat hartu nuen lehenbiziko aldia idazle koadrila batekin izan zen. Vigora joan ginen, eta handik Pontevedrara, eta harrezkero harro esan dezakek Igor Estankona nire laguna dela, baina beldur txiki batek hartzen nauela nire gauzak irakurtzen dituenen. Nire lehenbiziko ezezkoa Susakoek eman zidaten, eskura eman zidan Patxi Larrionek gutun bat, eta bota nuen arren,

akordatzeko naiz esaldietako bat zela arnas luzeko poemak nahiago zituztela, edo horrelako zerbait. Lehenbiziko aldia autoan galdu nintzela Durangon agertu nintzen, Aulestitik barrena, eta akordura etorri zitzaidan aitak Durangoko Azokara Urkiolatik barna eramaten gintuela, eta lasaitu nintzen orduan. Lehenbiziko aldiz prentsan idatzi nuenean Leitzaoko udaletxean zegoen Jesusen Bihotzaz idatzi nuen, baina ohartu naiz orain ez dagoela, azalekoak diren beste gauza asko bezala, baina benetakoak lehenbiziko aldian bezala mantentzen ditudala: liburuekiko maitasuna eta lagunekiko miresmena. ●